

Alli eta Ardantza Lehendakarien arteko harremanak

ABERTZALE den inorentzat Hegoaldeko Euskal herri honetan dagoen zatiketa instituzionala onartezina da.

Aipatutako hortan gaudenok badakizkigu eta ezin ditugu ukatu, eta gutxiago ahaztu edo aintzat ez hartu, Hego Euskal Herriak erakundatze orokorren bat izan dezan, dauden arrazoinak, zailtasunak, oztopoak eta baita ere erabiltzen diren aitzakiak.

Nafarroan indar politikoek dituzten jarrerak eta jokabideak dira lehenengo arrazoin eta aitzakiak; biak batera. Arrazoina, Nafarroako jendearen nahiak eta gogoak kontuan hartu gabe ezin daitekeelako sor eta taxu eman erakundeen egoera berri bati; eta ez da bakarrik gehiengo edo gutxiengoaren gora behera, ez. Gaur egun UPN delakoaren barruan aurkitzen diren milaka hain ezberdin guzti horien aurka, horien kontra zer edo zer eraikitzen saiatzea, Herri Batasunako jendetza ezberdina alde batera utzita sortu zuten erreforma hainako astakeria litzateke. Arrazoina, baina baita ere aitzakia. Beste Euskal Herriko toki batzuetan ez delako indar korrelazioaren neurriak erabili, eta Nafarroan bertan, Euskal Elkarte Autonomoan bezala, jendearen borondatea ez delako aintzat hartu hainbeste eta hainbeste aldiz, esate baterako OTA-Neri dagokionez.

Guzti horiek horrela direlarik ere, Alli eta Ardantzaren arteko harremanak eta elkarteak esanahirik badu, baina bere neurri batetaraino onartu beharra dago.

Hasteko zera aipatu behar, ez dutela harreman hortarako erakunde iraunkorrik eta ezta ere harremanetarako tresna eta bitartekorik sortu. Horrela harreman horiek une unekoak bihurtzen dira; Nafarroako Diputazioan edo Ajurianean nor dagoen eta beren alderdiak nola dabilten zerikusia eta eragina duten harremanak.

Gainera bai PNV eta baita UPN ere keinu eta itxurazko lorpen batzuen premia gorrion aurkitzen dira. Jeltzaleak PSOEk murgildu eta zapaldu ditu demarik garrantzitsuenetan; ezin izan dute beren hitza eutsi Lurraldearekin egindako akordioan, nahiz eta erabaki hori Gipuzkoako Aldundiaren eskuetan egon eta erakunde hortan PNVk gehiengo eduki. Eta hitza eusteko gai izan ez zirenak besteei leporatu nahi horrelako jokabidea. Hirukoitza apurtu ondoren Bil-

boko Kaiaren obrei hastapena emateko bideak ireki dituztela dirudi, baina Labe Garaiak mantentzeko ez dira kapazitatuturik azaltzen... eta apur horien truke, Korkueraren legeak eta aurrean jartzen dizkieten apo guztiak irensten ari dira. PNVri eta UPNri bada oso ederki etorri zaie beren itxuraketa politikorako bilera hori.

Baina hartu ote dute erabakirik? Ezetz dirudi. Autobiari buruzko elkarrizketa prentsaurreako gaia da; industriaren galpen edo beheakadari dagokionez ezer berririk ez da azaldu; beste ekonomia edo kultur

ARDANZA ETA ALLI EUSKAL LURRETAN DAUDEN BI LEHENDAKARIAK BILTZEA NOLA IZANEN DA BADA ASKI LEHENDAKARIA BAT BESTERIK EZ LUKEENEAN IZAN BEHAR.

alorretan ez dago emaitzik.

Guzti horren aurrean halere ondorioren bat edo beste ere atera liteke. Alde batetik helburu bezala, normalizazio itxura eman nahi izan dutela, bie hori komeni zaielako; PNVri aitzaki bezala erabiltzeko; UPNko Alli jaunaren zatiari berriz egoera erabat ezarri eta tinko eta sendo oinarriturik dagoela adierazteko.

Azpimarratu egin behar ordea baita ere Alli jaunaren ausardia, hain zuzen ere Euskaltzaindiko edo Ajurianeako bilerak eginez gero, guztiz gainditua utzi

duelako zortzi urtez Urralburu jaunak egindakoa. Ez bakarrik orain arte egindakoa, baizik baita ere EA, IU eta PSOEn egitarau edo programan zegoena baino askoz ere gehiago, alde hortatik bada Nafarroan eta beste ingururen batean farragarri gelditzen ari denik. Nafarroan politika birak ematen hasi da, baina ez ditu oraindik azkeneko eta ezta azken aurreko itzuliak ere egin.

Herri Batasunak erronka bati erantzun behar izan zion UPNko gobernu osatu zenean Nafarroan. Erronka horrek alde asko zeukan eta horietatik bat, garrantzirik txikiena ez duena hain zuzen ere zera da, nafarzaletasuna sumatzen eta zaintzen edo defendatzen dutenen artean euskararekiko eta euskaldungo-arekiko gorrotoa edo aurkakotasuna kentzea. Beste alde batetik gainera herri honek dituen arazo guztiz sakonen aurrean, ez dute bapateko edo txantxetako aterape edo jokuek balio.

Esaten dute, esan, EAEko hirukoitza Mariangelesek (: Sestaoko Labe Garai berriena) hautsi zuela eta Ajurianeako hitzarmena Herri Batasunaz edo ETAz arduratzeko baino gehiago dela gobernutik kalera-tuak nolabait loturik edo murgildurik mantentzeko. Esaten dute, esan baita ere, Europako Elkarte Ekonomikoan egin den sarrera mota axolagabe eta nolabait PSOEn aurka bihurtzen ari dela; ez dira bakarrik arrantzale eta nekazariak, baizik baita ere industriarik gehiena kolokan jartzen ari dena gure inguruan eta ez dira errazak datozkigun garaiak. Datoren urrian berriro ere eskuinak hartu nahi ditu Estaduko giltzak eta horrek ere mugimendu bereziak eragiten ditu batez ere eskuineko alderdien inguruetan.

Hasieratik bukatu behar; Alli jaunaren keinua ez bada ere itsusia, abertzaleontzat ez dela nahikoa ezin ahaztu. Eta gutxiago orain arteko jokabideak hain gogorriki salatzen digunon aurrean. Izan ere bai Ardantza eta baita Alli ere Euskal lurretan dauden bi lehendakariak biltzea nola izanen da bada aski, lehendakaria bat besterik ez lukeenean izan behar?

PATXI ZABALETA
EUSKALTZAINA ETA HB-KO PARLAMENTARIA

BERRIAK ZIRI



ANATOLE SOBTXAK
San Petersburgoko alkatea
EL SOL

«Uste dut ez genuela jakin

kolpeak ireki zizkigun eta bakarrik ziren posibilitateetaz baliatzen, baina indar demokratikoak prestatu gabe zeuden»



INAKI ANASAGASTI
EAlko bozeramalea
DIARIO 16

«EAJn ez dugu nahi Konstitu-

zioaren erreformarik»



G.GODO I BLASCO
Preso politiko katalana
EGIN

«Independen-

tismo katalanaren krisi sakona bakar bakarrik bere akatseen ondorio da»



MIKEL LASA
Real Madrideko futbolari
DEIA

«Izugarri

gustatuko litzaidake Realaren aurka jokatzea eta, jokatuko banu, hil arte defendatuko nituzke nire koloreak»

Hiesak hamar urte Euskadin

DUELA hamar urte Giza Inmunoeskasiaren Birusak (GIB), Hiesaren Birusa izenez ezagunagoak, lehen biktimak sortu zituen EEBBetan. Baina, denbora gutxi geroago, Euskadira iritsi zen. Ez dugu inoiz nola gertatu zenik jakingo, ez eta infektatu zen lehen pertsona nor izan zenik. Baliteke, heroina erosteko Amsterdamera joandako heroinomanoren batek ekartzea birusa, han xiringak elkarbanatuz kutsatu ondoren.

Hiesaren Birusa 1982 eta 1985 bitartean hedatu zen toxikomanoen artean. Honela, 1985ean eroaleak zeintzu ziren jakin ahal izateko erreaktiboak izan genituenean, benabarnetiko adiktoen %60 ordurako infektaturik zegoela egiaztatu genuen.

1984ean hasi ziren lehen Hiesdun gaisoak azaltzen. Hiesia diagnostikatu zioten lehen pazientea geroxeago hil zen emakume heroinomano bizkaitarra izan zen. Orduetik hona 1.100dik gora pertsona izan dira Euskadin gaisotasun hau diagnostikatu zaienak.

Hiesia batez ere drogaren menpe zegoen jendeak harrapatzen zuela eta, mundu osoan bezalaxe, Euskadin infekzio hau 'beste batzuegan' eragiten zuten zerbait kontsideratu zen, kolektibo margina-

letan gertatzen zen zerbait, ez gizarte osoan.

1991ko Azaroan gertatu da ziurrenik GIBa ezagutzeko geroztik Hiesaren historian izandako gertaerarik garrantzitsuenak: Magic Johnsonek Hiesaren Birusaren erroale dela ematen du aditzera. Bi faktoreri dagokie gertakari honek garrantzia.

Lehenik, GIBak era guztietako pertsonengan eragin dezakeela jakinaren gainean gauden arren subkoneszientean Hiesia 'beste batzuegan' eragiten duen zerbait dela pentsatzen dugulako oraindik ere. Magic Johnsonen kasuak, —harreman heterosexualen bidez kutsatutako pertsona 'normalarenak'— biziki lagunduko du biztanlego guztiaren artean harreman heterosexualak duten arriskuari buruzko kontzientziazio maila haundiagoa lor-tzen.

Bigarren, kasu honek —saskibaloi jokalaria eta gazteen idolo izaki— gazte jendearen artean izan dezakeen influentzia, egin litezkeen informazio eta heziketa kanpaina guztiena baino askoz ere haundiagoa izango delako.

Azkenik, azpimarratzekoa da Los Angeles Lakerseko jokalaria jarrera baikorra, kutsatuta dagoela eta gaisotasunari aurre egingo diola jen-

daurrean azalduz. Honek, gaur egun gertatzen den marginazioa gutxitzen asko lagunduko bait du.

Hiesaren Mundu Egunak agerian jarri duen beste aspektu aipagarrietako bat izan da, GIBaren hedapen heterosexualak emakumezkoen artean erakutsi duen egoera larria. Estatistiken arabera, 1988an, Hiesia diagnostikatu zitzaizen emakume guztien %6 harreman heterosexualen bidez kutsatu zen. 1989an portzentaia hau % 15eraino igo zen eta 1990ean %22raino. Hau da, 1990ean, Hiesia diagnostikatu zitzaizen emakumeen artean 4tik 1ek hartu zuen infekzioa harreman heterosexualen bidez. Emakumeen artean Hiesaren gehikuntzak egoera dramatikoetara joko du hemendik 2000 urtera bitartean.

Hamarkada honetan gure gizarteak izango duen arazorik larrietakoa izango da Giza Inmunoeskasiaren Birusaren transmisio heterosexualari aurre egitea. Hiesak arazo marginala izateari utzi dio eta guztiongan eragiten du.

DANIEL ZULAIKA
HIESAREN PREBENTZIOARAKO PLANGINTZAKO KOORDINATZAILEA EAE-N

ZAKILIXUT

© Olariagak

